

JOKOAREN HELBURUA:

- ▶ 22. KORRIKAK egingo duen ibilbideari jarraikiz, nor bere fitxa Amurriotik Donostiara eramatea. Irabazlea izango da Donostiara aurrena heltzen den jokalaria.

JOKOA PRESTATU:

- ▶ Jokoan hasi aurretik, presta itzazu beharko dituzun osagai guztiak: mapa, txartelak, dadoak, fitxak, “Jokorako ikus-entzunezkoak” (azken horiek alde aurretik jaistea eta ordenagailuaren pantailan prest izatea komeni da, behar ditugunean erraz erabili ahal izateko)...
- ▶ Mapa 15. orrialdean duzu. Egin horren kopia handia (A3 neurrikoa, esaterako). Kopia koloretan egin ahal baduzu eta mapa kartoi mehe baten gainean itsatsita, askoz ere txukunago geratuko zaizu.
- ▶ Txartelak hurrengo orrialdeetan dituzu. Lehenengo eta behin, kopiatu eta moztu egin beharko dituzu; ondoren, multzoka jarri beharko dituzu gaika bilduta (euskarari buruzko galderak, geografiari buruzkoak eta Korrikari buruzkoak), eta ahoz behera utzi maparen ondoan. Txartelak errazago bereizteko, koloretako orrietan kopia ditzakezu: kulturari buruzko galderak, esaterako, orri berdeetan; euskarari buruzkoak, horietan; geografiari buruzkoak, urdinetan; eta Korrikari buruzkoak, laranjetan.
- ▶ Dadoak eta fitxak beste edozein jokotatik atera ditzakezu.

JOKALARIAK ANTOLATU:

- ▶ Kopuruaren arabera, bakarka, binaka ala hirunaka jokatuko dugu: sei jokalaria baino gutxiago bagaude, bakarka; sei eta hamabi bitartean bagaude, binaka; eta hamabi jokalaritik gora egonez gero, hirunaka.

JOKOAREN ARAUAK:

- ▶ Jokoari hasiera emateko, jokalaria guztiek dadoa bota eta zenbakirik altuena ateratzen duenak emango dio hasiera jokoari.
- ▶ Jokalariak dadoa bota eta dagokion laukiraino mugituko du fitxa. Lauki horretan, letra bat aurkituko du: **K (Korrika)**, **G (geografia)**, **E (euskara)** edo **Z (zortea)**. Jokalariak laukiko letrari dagokion txartel bat hartu eta, **ikusitako gabe, irakasleari emango dio** irakur dezan.
- ▶ **E, G eta K multzoetan, galderak daude:** jokalariak galderari zuzen erantzuten badiu, dadoa berriro bota ahal izango du; txarto erantzuten badiu, ordea, hurrengo jokalaria txanda izango da. Erantzunak txarteletan bertan daude azpimarratuta. Jokalari batek, gehienez, hiru aldiz jarraian bota ahal izango du dadoa.
- ▶ Txartelean **izartxo bat agertuz gero, “Jokorako ikus-entzunezkoak” karpetara jo** eta txartelean aipatzen den dokumentua zabaltu eta ikusiko dugu.
- ▶ Txartelean **K+zenbaki bat+KANTA agertuz gero, “Audioak” karpetara jo** eta txartelean aipatzen den dokumentua zabaltu eta entzungo dugu.
- ▶ **Z letradun laukietan** eroriz gero, bertan esaten dena egin behar izango du jokalaria. Txartel horietan **hieroglifo bat ateratzen bada**, jokalaria **minutu bat izango du erantzuna asmatzeko**. Asmatzen badiu, dadoa bota eta aurrera egin ahal izango du; bestela, txanda galduko du.
- ▶ Txartel bat erabili ondoren, sartu berriro dagokion multzoaren behealdean.
- ▶ **Fitxa bi ezin izango dira batera egon** lauki berean egon; hortaz, jokalaria baten fitxa beste batena dagoen laukira iristen bada, aurretik zegoen fitxak atzera egin beharko du ibilbidean zehar, azkeneko igarotako hiriburura heldu arte.



ERANTZUN ZUZENAK:

Jokoaren erantzun gehienak txarteletan daude azpimarratuta, baina gutxi batzuek txarteletan agertu behar ez dutenez, hona ekarri ditugu:

KORRIKA-LOGOTIPOAK:



11. KORRIKA



12. KORRIKA



13. KORRIKA

HIEROGLIFOAK:

- Zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldean sartu aurretik? **Irun.**
- Herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen. **Andoain.**
- Nola egingo duzu korrika? **Kohete batek bezala.**
- Zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAn? **Hamaika.**

IZARTXOAK (IKUS-ENTZUNEZKOAK):

1. 12. KORRIKA; 2. Egan; 3. Esne Beltza; 4. Ines Osinaga; 5. 1. irudia; 6. C; 7. C; 8. 2. irudia.

KORRIKA KANTAK (AUDIOAK):



Audio bakoitza zein edizioarekin dagoen lotuta jarri dizuegu hemen (edizio hartako abeslarien informazioarekin batera). Erantzun zuzena jakinda, kanta osoa entzun nahi izanez gero:

- K1** (1. KORRIKA > Xabier Amuriza)
- K2** (9. KORRIKA > Alex (Exkixu), Gorka (Sorotan Bele), Maixa, Ixiar eta Garbiñe)
- K3** (8. KORRIKA > Tapia eta Leturia)
- K4** (6. KORRIKA > Xanti eta Maider)
- K5** (2. KORRIKA > Akelarre)
- K6** (13. KORRIKA > Mikel Laboa eta Ruper Ordorika)
- K7** (14. KORRIKA > Afrika, Ernesto eta Isra)
- K8** (16. KORRIKA > Betagarri)
- K9** (5. KORRIKA > Oskorri)
- K10** (15. KORRIKA > Niko Etxart eta Hapa-hapa)
- K11** (21. KORRIKA > La Furia, Mad Muasel, Fermin Muguruza)
- K12** (10. KORRIKA > Gozategi)

K

Nondik nora joan zen lehenengo KORRIKA?

- a. Andoaindik Baionara.
- b. Urepeletik Bilbora.
- c. Oñatitik Bilbora.

K

KORRIKAn, **lekuko**¹ bat eramaten da. Nork egin zuen lehenengo lekukoa?

- a. Jorge Oteizak.
- b. Remigio Mendiburuk.
- c. Juan Gorritik.

1. Lekuko: testigo; *témoin*

K

Normalean, KORRIKA bi urterik behin **antolatzen**¹ da. Zenbat denbora behar dugu lau KORRIKA ikusteko?

ERANTZUNA: 6 urte inguru. *Adibidez: Korrika 16, 2009an ospatu zen; Korrika 17, 2011n; Korrika 18, 2013an; eta Korrika, 19, 2015ean. Beraz, lau Korrika sei urtean.*

1. Antolatu: organizar; *organiser*

K

Zenbat kilometro egiten dira KORRIKAn?

- a. 2.100 kilometro inguru.
- b. 1.000 kilometro inguru.
- c. Ia 5.000 kilometro.

K

KORRIKAn, egurrezko **lekuko**¹ bat eramaten da herriz herri. Zer dago lekukoaren barruan?

- a. Omenduaren izena.
- b. Mezu sekretu bat.
- c. Ezer ez.

1. Lekuko: testigo; *témoin*

K

Nor **omendu**¹ zuen 19. KORRIKak?

- a. Durangoko Azoka.
- b. Euskaltzaindia.
- c. Euskal idazleak.

1. Omendu: homenajear; *rendre hommage*

K

Zein **maiztasunez**¹ antolatzen da KORRIKA normalean?

- a. Urtero.
- b. Bi urterik behin.
- c. **Bisurteetan**² baino ez.

1. Maiztasun: frecuencia; *fréquence*

2. Bisurte: año bisiesto; *année bissextile*

K

KORRIKA Iruñean dago eta amaitzeko metro batzuk falta dira... **bat-batean**¹, esprinta egin duzu eta bigarren korrikalaria aurreratu duzu. Zein postutan heldu zara **helmugara**²?

ERANTZUNA: Bigarren postuan

1. Bat-batean: de repente; *soudain*

2. Helmuga: meta; *arrivée*

K

Nork egin zuen 18. KORRIKAREN kanta?

- a. Betagarrik.
- b. Esne Beltzak.
- c. Gosek.

K


Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Begiratu logotipoari eta esan zein KORRIKAtakoa den.



(Erantzuna, irakasleak)

K

Hau da 11. KORRIKAREN **leloa**¹. Nola amaitzen da?

Bat eta bat hamaika...

- a. ... bi eta bi hogeita bi.
- b. ... hemen dator Korrika.
- c. ... zu eta ni euskaraz.

1. Lelo: eslogan; *slogan*

K

Non ez da inoiz hasi KORRIKA?

- a. Azpeitian.
- b. Orreagan.
- c. Trebiñun.

K

Non ez da inoiz amaitu KORRIKA?

- a. Gasteizen.
- b. Donibane Garazin.
- c. Baionan.

K

Zenbat KORRIKA egin dira XXI. **mende**¹

- a. Bederatzi.
- b. Hamar.
- c. Hamaika.

1 Mende: siglo; *siècle*

K

Nola zuen izena 20. KORRIKAREN kantak?

- a. Zirkorrika.
- b. Zirkoa eta KORRIKA.
- c. Korzirkoa.

K

KORRIKA-kantak euskal musika-taldeek eta kantariak egiten dituzte. Nork ez du egin, orain arte, KORRIKA kantarik?

- a. Betagarrik.
- b. Mikel Laboak.
- c. Ken Zazpik.

K

Gogoratzen duzu 20. KORRIKAREN **leloa**¹?

- a. Euskalakari.
- b. Batzuk.
- c. Eman euskara elkarri.

1. Lelo: eslogan; *slogan*

K

Zein izan zen 21. KORRIKAREN **leloa**¹?

- a. Klika.
- b. Batzuk.
- c. Kor.

1. Lelo: eslogan; *slogan*

K

Nor **omendu**¹ zuen 21. KORRIKAK?

- a. Amuriza.
- b. Andoni Egaña.
- c. Txillardegi.

1. Omendu: homenajear; *rendre hommage*

K 1

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 12. Korrikarena

K 2

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Egan

K 3

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Esne beltza

K

Nork hartu zuen parte
21. KORRIKAREN kantan?

- a. La Irak.
- b. La Furiak.
- c. La Besteak.

K

Nork hartu zuen parte
21. KORRIKAREN kantan?

- a. Fermin Muguruzak.
- b. Xabier Muguruzak.
- c. Iñaki Muguruzak.

K

Nork hartu zuen parte
21. KORRIKAREN kantan?

- a. Betagarrik.
- b. Xabier Solanok.
- c. Mad Muaselek.

K

Nondik nora joan zen
21. KORRIKA?

- a. Otxandiotik Iruñera.
- b. Garesetik Gasteizera.
- c. Amurriotik Iruñera.

K

Nork sortu du 22. KORRIKAREN
kanta?

- a. Nerea Arbizuk.
- b. Izarok.
- c. Zuriñe Hildagok.

K

Nork hartu du parte
22. KORRIKAREN kantan?

- a. Amaia Zubiriak.
- b. Aiora Renteriak.
- c. Anarik.

K

Nor omenduko du
22. KORRIKAK?

- a. Ez du inor omenduko.
- c. Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
- d. Euskara-ikasle guztiak.

K

Nondik abiatuko da
22. KORRIKA?

- a. Agurainetik.
- b. Amurriotik.
- c. Arbonatik.

K

Non amaituko da
22. KORRIKA?

- a. Baionan.
- c. Bilbon.
- d. Donostian.

K

Zein da 22. KORRIKAREN
leloa?

- a. Hitzekin.
- b. Hitz egin.
- c. Ekin elkarrekin.

1. **Lelo**: eslogan; *slogan*

K

Noiz hasiko da 22. KORRIKA?

- a. Martxoaren hasieran.
- b. Martxoaren erdialdean.
- c. Martxoaren amaieran.

K

Noiz amaituko da
22. KORRIKA?

- a. Apirilaren 3an
- b. Aprilaren 10ean.
- c. Apirilaren 17an.

K1 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 1. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

*Milaka korrikari
Euskal herri guztietan*

- a. Denok gara abeslari
- b. Denok bai euskarari
- c. Euskaraz eta kantari

K2 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 9. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

*Gu zenbat lagun ote
Hirekin asko*

- a. Izan gaitzezke
- b. Euskara eske
- c. gaude oso alde

K3 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 8. KORRIKAREN kanta da. Zeinek abesten du?

- a. Pantxoa eta Peiok.
- b. Imuntzo ta Belokik.
- c. Tapia eta Leturiak.

K4 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 6. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

Gure hizkuntza aurrera doa

- a. Eta ez dakigu noiztik!
- b. Eraso denen gainetik!
- c. Gure buruen gainetik!

K5 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Zein KORRIKARI dagokio?

- a. 2. KORRIKARI.
- b. 7. KORRIKARI.
- c. 17. KORRIKARI.

K6 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 13. KORRIKAREN kanta da. Hauetako bi kantarik abesten dute, zeintzuk?

- a. Mikel Laboak.
- b. Benito Lertxundik.
- c. Ruper Ordorikak.

K7 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 14. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

Elkar ulertzeko

- a) Sortzen dira hizkuntzak
- b) Hitzak eta hitzak
- c) Gora bizitzak

K8 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Zein KORRIKARI dagokio?

- a. 7. KORRIKARI.
- b. 16. KORRIKARI.
- c. 19. KORRIKARI.

K9 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 5. KORRIKAREN kanta da. Zeinek abesten du?

- a. Kortatuk.
- b. Oskorrik.
- c. Itoitzek.

K10 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 15. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

Heldu heldu Korrikari

- a. Zatoz (e)ta eman hari
- b. Heldu heldu Euskarari
- c. Goazen korrikalari

K11 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 21. KORRIKAREN kanta da. Nola jarraitzen du?

Motorrak arrankatzeko momentuko aukera

- a. Gurea, herrikoa, korrika!
- b. Pausoz pauso, aurrera!
- c. Presarik gabe, aurrera!

K12 KANTA

Entzun audioa eta erantzun galderari:

Hau 10. KORRIKAREN kanta da. Zeinek abesten du?

- a. Gozategik.
- b. Kepa Junkerak.
- c. Gu ta Gutarrakek.

G

21. KORRIKA Gasteizen amaitu zen. Nola deitzen da Gasteizeko plaza famatuena?

- a. Florida plaza.
- b. Andre Maria Zuriaren plaza.
- c. Estafeta plaza.

G

KORRIKA normalean herri hauetatik **igarotzen**¹ da. Zein dago besteak baino **iparralderago**²?

- a. Bermeo.
- b. Donostia.
- c. Donibane Garazi.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*
- 2. **Iparralderago**: más al norte; *plus au nord*

G

Korrika Zuberoatik igaroko da. Zein da Zuberoako **hiriburua**¹?

- a. Donibane Lohizune.
- b. Maule.
- c. Donibane Garazi.

- 1. **Hiriburu**: capital; *capitale*

G

KORRIKA Altsasura **mendebaldetik**¹ badator, zein herritatik etorriko da?

- a. Etxarri Aranaztik.
- b. Agurainetik.
- c. Urdiaindik.

- 1. **Mendebalde**: oeste; *ouest*

G

KORRIKAn **euskalki**¹ asko entzun ahal izango ditugu: zuberera, bizkaiera, gipuzkera... Nork egin zuen euskalkien lehenengo mapa?

- a. Etxeparek.
- b. Louis Lucien Bonapartek.
- c. Sabino Aranak.

- 1. **Euskalki**: dialecto; *dialecte*

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik **igarotzen**¹ da. Zein dago **ekialderago**²?

- a. Tafalla.
- b. Iruñea.
- c. Ezkaroze.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*
- 2. **Ekialderago**: más al este; *plus à l'est*

G

KORRIKA normalean **mendate**¹ hauetatik pasatzen da. Zein da altuena?

- a. Herrera.
- b. Barazar.
- c. Erremendia.

Herrera (1.104 m.), Barazar (606 m.), Erremendia (1.040 m.)

- 1. **Mendate**: puerto; *port*

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik **igarotzen**¹ da. Zein dago besteak baino **mendebalderago**²?

- a. Urduña.
- b. Santurtzi.
- c. Gasteiz.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*
- 2. **Mendebalderago**: más al oeste; *plus à l'ouest*

G

KORRIKA normalean ondoko herrietatik **igarotzen**¹ da. Zein dago besteak baino **hegoalderago**²?

- a. Bernedo.
- b. San Adrian.
- c. Tutera.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*
- 2. **Hegoalderago**: más al sur; *plus au sud*

G

Zein herrialdetan hasi zen 21. KORRIKA?

- a. Nafarroan.
- b. Araban.
- c. Bizkaian.

G

Mapa ikusita, hauetako zein herritatik **igaroko**¹ da lehenago 22. KORRIKA?

- a. Garraldatik.
- b. Nabaskozetik.
- c. Tuteratik.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*

G

Zein ibaitik **igaroko**¹ dira korrikalariak Donostian?

- a. Zadorratik.
- b. Urumeatik.
- c. Aturritik.

- 1. **Igaro**: pasar; *passer*

G

KORRIKA normalean Barazar **mendatetik**¹ igarotzen da. Zein mendi ikusten da Barazartik?

- a. Anboto.
- b. Oiz.
- c. Gorbeia.

1. Mendate: puerto; *port de montagne*

G

22. KORRIKAN, ibai hauek pasatuko ditugu gainetik. Zein izango da azkena?

- a. Ezka.
- b. Ebro.
- c. Ibaizabal.

G

KORRIKA normalean herri hauetatik igarotzen da. Zein da altuena?

- a. Otsagabia.
- b. Abaurregaina.
- c. Otxandio.

*Otsagabia (764 m.)
Abaurregaina (1.039 m.)
Otxandio (554 m.)*

G

Pertsona famatu hauetako bat Gasteizekoa da. Badakizu nor?

- a. Gorka Urbizu musikaria.
- b. Juanito Oiarzabal.
- c. Estitxu Arozena bertsolaria.

G

Zein ibairen gainetik **igaroko**¹ da KORRIKA Lizarran?

- a. Egaren gainetik.
- b. Aturriren gainetik.
- c. Ebroren gainetik.

1. Igaro: pasar; *passer*

G

22. KORRIKA herri hauetatik **igaroko**¹ da. Mapa ikusita, zein izango da azkena?

- a. Agurain.
- b. Galdakao.
- c. Tutera.

1. Igaro: pasar; *passer*

G

Pertsona famatu hauetako bat Gasteizekoa da. Badakizu nor?

- a. Onintza Enbeita bertsolaria.
- b. Mainer Unda kirolaria.
- c. Karra Elejalde aktore eta umorista.

G

Pertsona famatu hauetako bat Donostiakoa da. Badakizu nor?

- a. Ilaski Serrano kazetaria eta telebista aurkezlea.
- b. Txillardegi hizkuntzalaria, idazlea eta politikaria.
- c. Alberto Iñurrategi mendizalea.

G

Bakiotik pasatzean, zein edari tipiko hartuko dute korrikalariak?

- a. Sagardoa.
- b. Ardoa.
- c. Txakolina.

G

Herri hauetako batean ez dira sanferminak **ospatzen**¹. Badakizu non?

- a. Iruñean.
- b. Lizarran.
- c. Lesakan.

ospatu¹: celebrar; *célébrer*

G

KORRIKAK bisitatuko dituen hiru herri hauen artean, zein da jendetsuena?

- a. Irun.
- b. Baiona.
- c. Barakaldo.

G

KORRIKAK **hiriburu**¹ guztiak bisitatuko ditu. Zein da Euskal Herriko hiriburu historikoa?

- a. Iruñea.
- b. Gasteiz.
- c. Baiona.

1. Hiriburu: capital; *capitale*

G

22. KORRIKA Senperetik igaroko da. Mapa ikusita, zein izango da hurrengo herria?

- a. Garralda.
- b. Donostia.
- c. Hendaia.

G

KORRIKArekin, ibai askoren gainetik igaroko gara. Hauetako batetik ez, zeinetatik?

- a. Ega.
- b. Arga.
- c. Guadiana.

G

KORRIKA normalean herri hauetatik igarotzen da. Zein da altuena?

- a. Lizarra.
- b. Iturrieta.
- c. Beizama.

*Lizarra (426 m)
Iturrieta (972 m)
Beizama (485 m)*

G

Non dago Iturrieta herria?

- a. Lapurdin.
- b. Araban.
- c. Nafarroa Beherean.

G

Non dago Biarritz herria?

- a. Lapurdin.
- b. Gipuzkoan.
- c. Zuberoan.

G

Non dago Genevilla herria?

- a. Nafarroan.
- b. Araban.
- c. Gipuzkoan.

G

Zein da Gasteizkoa? (Posible da bat baino gehiago izatea)

- a. Karra Elejalde.
- b. Iker Jimenez.
- c. Alex Ubago.

G

Zein ibai zeharkatuko dute korrikariek Iruñetik igarotzean?

- a. Ebro.
- b. Urrobi.
- c. Arga.

G

Ezpeletan, zein elikagai tipiko jango dute korrikariek?

- a. Baratxuria.
- b. Gazta.
- c. Piperra.

G

Badakizu zein ibai zeharkatuko duten korrikariek Amurriotik igarotzean?

- a. Ibaizabal.
- b. Cadagua.
- c. Nerbioi.

G

Non bizi da jende gehien?

- a. Iruñean.
- b. Donostian.
- c. Gasteizen.

G

Non dago Gares?

- a. Izarbeibarren.
- b. Lizarraldean.
- c. Orbaibarren.

E

Hendaiara joan zara korrika egitera. Halako batean, zera entzun duzu: "*Biziki akituta nago!*" Zer esan nahi du?

- a. Hendaian bizi dela.
- b. Korrika azkar egiten duela.
- c. Oso nekatuta dagoela.

E

Oso alferra zara eta ez duzu KORRIKARA joan nahi. Zer egingo duzu?

- a. Atzizkia jarri.
- b. Aitzakia jarri.
- c. Altzaria jarri.

E

KORRIKA egin ondoren, egarri zara eta ura nahi duzu. Zer esango duzu?

- a. Emadazu ura, mesedez!
- b. Emaiozu ura, mesedez!
- c. Eman didazu ura, mesedez!

E

Teresek kilometro asko egin ditu KORRIKAN eta ezin du jarraitu. Zer esan du?

- a. Uf! Jota nago!
- b. Uf! Blai nago!
- c. Uf! Oker nago!

E

KORRIKA iristean oso urduri jartzen bazara, zer esango duzu?

- a. Zer urduri nago!
- b. Zer urduri nagoen!
- c. Zer urduri nagoela!

E

Nondik sartuko da KORRIKA Nafarroa Beherean?

- a. Ibañetaren lepotik.
- b. Ibañeta lepotik.
- c. Ibañetako lepotatik.

E

Noiz helduko da KORRIKA Donostiara?

- a. Apirilaren 10etan.
- b. Apirilaren 10ean.
- c. Apirileko 10ean.

E

KORRIKA pasatzean zein ordu den galdetzen badigute, zer erantzun beharko dugu?

- a. Ordu biak eta erdiak.
- b. Ordu bietan eta erdietan.
- c. Ordu bi eta erdiak.

E

Euria aitzakia ona izan daiteke KORRIKARA ez joateko. Baina nola esan beharko duzu?

- a. Ezin naiz joan. Euria ari da.
- b. Ezin naiz joan. Euria ari du.
- c. Ezin naiz joan. Euriak ari du.

E

KORRIKA zure herritik pasatzeko bi egun falta badira, zer esango duzu?

- a. Herenegun etorriko da.
- b. Etzi etorriko da.
- c. Herensuge etorriko da.

E

KORRIKAREN lehenengo egunean lan egin beharko duzu eta ezin izango zara Amurrora joan. Nola esango diozu hori bizkaitar bati?

- a. Beharrean arituko naiz.
- b. Lantzean arituko naiz.
- c. Trabakuan arituko naiz.

E

Baionara joan zara KORRIKARA. Halako batean, "*Zoaz gibelerat!*" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Medikuarengana joan, gibela txarto daukat eta.
- b. Atzera joan.
- c. Aurrera joan.

E

Zer falta da esaldi honetan?

"21. KORRIKAn ezin izan nuen parte hartu, buruko mina _____ eta".

ERANTZUNA: ... buruko mina nuen/neukan eta".

E

Nola amaitu behar duzu esaldi hau?

"Aurreko KORRIKAn ondo entrenatu nintzen eta kilometro guztiak egin ...".

ERANTZUNA: ...nituen".

E

Ondoko esaldian akats bat dago. Zuzendu ezazu:

"21. KORRIKAn, jende asko hartu zuen parte".

ERANTZUNA: "19. KORRIKAn, jende askok hartu zuen parte".

E

KORRIKA oso azkar doa eta ezin diozu erritmoari jarraitu. Zer eskatuko diezu beste korrikalarietara?

- a. ... motelago joatera.
- b. ... motelago joan direla.
- c. ... motelago joateko.

E

Korrikalari bat, metro batzuk KORRIKA egin ondoren, *marmarka* hasi bada, zertan hasi da?

- a. Errepideko marrazkiak zenbatzen.
- b. Kexaka.
- c. Esprintean.

E

Donapaleura joan zara KORRIKARA. Halako batean, "*Kasu! Kasu!*" esan dizu batek. Zer egingo duzu?

- a. Egunkaria erosiko diot.
- b. Agurtu egingo dut.
- c. Kontuz ibiliko naiz.

E

Zer esan nahi du esaldi honek? "Korrikalariak oso *kuxkuxeroak* omen dira."

- a. Kuskusa jatea gustatzen zaiela.
- b. Leku guztietan sartzen dutela muturra.
- c. Oso dotore janzten direla.

E

Maulera joan zara KORRIKARA. Halako batean, "*Zoaza aitzinera*" entzun duzu. Zer egingo duzu?

- a. Denbora-makinan sartu eta iraganera joan.
- b. Atzera joan.
- c. Aurrera joan.

E

Zein ordutan pasatuko da KORRIKA Tuteratik?

- a. Goizeko zazpitan.
- b. Goizeko zazpiretan.
- c. Goizeko zazpitan.

E

Zein egunetan pasatuko da KORRIKA?

- a. Apirileko lauaean.
- b. Apirileko lauran.
- c. Apirilaren lauan.

E

Noiz hasiko da 22. KORRIKA?

- a. Martxoko 31n.
- b. Martxoaren 31n.
- c. Martxoaren 31ean.

E

KORRIKAn 40 kilometro jarraian egin ondoren, zer esan behar duzu?

- a. Nekatua gaude.
- b. Nekatutak gaude.
- c. Nekatuta gaude.

E

Zein da zuzena?

- a. KORRIKAn parte hartuko zaigu.
- b. KORRIKAn parte hartuko dut.
- c. KORRIKAn parte hartuko da.

E

Korrika egin nahi ... baina hanka apurtua daukat.

- a. dut
- b. dute
- c. duzu

E

Noiz egingo dugu, bada, KORRIKA?

- a. Atzo.
- b. Herenegun.
- c. Bihar.

E

KORRIKAn debekatuta dago ...

- a. gaizki pasatzeko.
- b. gaizki pasatzen.
- c. gaizki pasatzea.

E

Zein da okerra?

- a. KORRIKA ez da hemendik igaroko.
- b. KORRIKA bihar iritsiko da.
- c. KORRIKak atzeratu da.

E

KORRIKA ... antolatzen du.

- a. AEK-k
- b. AEK
- c. AEKn

E

KORRIKAn parte hartu behar dugu euskarari ...

- a. laguntzea.
- b. lagunduko.
- c. laguntzeko.

E

KORRIKA ... sartuko da gure herrian.

- a. 08:05en
- b. 08:05ean
- c. 08:05etan

E

... iritsiko da KORRIKA.

- a. Datorren iganden
- b. Datorren igandean
- c. Datorren igandetan

E

KORRIKAN astakeriarik ez ... egin.

- a. zaitetze
- b. itzazue
- c. ezazue.

E

KORRIKA iritsi arte, ...

- a. entrenatzeko joango naiz.
- b. entrenatzera joango naiz.
- c. entrenatzen naiz.

E

Bihar ... da KORRIKA.

- a. hasi
- b. hasiko
- c. hasteko

E

Osatu atsotitza:

"Entzun eta isil, ...

- a. baiezko biribil".
- b. gezurra dabil".
- c. ikusi eta ibil".

E

Osatu atsotitza:

"Mintzatzea zilarra, ...

- a. batzuetan beharra".
- b. isiltzea urrea".
- c. batzuetan isiltzea beharra".

E

Osatu atsotitza:

"Erositako prezioan ...

- a. saldu".
- b. erosi".
- c. .oparitu".

E

Osatu atsotitza:

"Gogoko tokian, ...

- a. aldaparik ez".
- b. errega-erreginak bezala".
- c. ez dago harririk".

E

Osatu atsotitza:

"Zenbat buru, ...

- a. horrenbeste txapel".
- b. hainbat aburu".
- c. hainbeste liburu".

E

Osatu atsotitza:

"Urrutiko intxaurrak hamalau, ...

- a. egunez eta gau".
- b. hau da hau".
- c. gerturatu eta lau".

Z 4

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Ines Osinaga

Z 5

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: 2. irudia

Z 6

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Lehenengo lekukoa San Telmo Museoan dago.

Z 7

Pantailako galderari zuzen erantzuten badiozu, **dadoa berriro botako duzu**; bestela, **txanda bat galduko duzu**.

Erantzuna: Mezua AEK-ko arduradunek idazten dute.

Z

Hemendik aurrera tabernan euskaraz eskatuko duzula erabaki duzunez, **aurreratu 2 lauki**.



Z

Hemendik aurrera lagun edo senide batekin euskaraz mintzatzeko apustua egin duzunez, **aurreratu 3 lauki**.



Z

KORRIKA azkarregi egiteagatik, isuna jarri dizute: dadoarekin **6 atera arte ezin izango duzu fitxa mugitu.**



Z

HIEROGLIFOA: zein herri zeharkatuko du KORRIKAK Iparraldetik atera eta gero?



Z

HIEROGLIFOA: herri hau KORRIKA baten abiapuntua izan zen.



Z

HIEROGLIFOA: nola egingo duzu KORRIKA?

"..... batek bezala".



Z

HIEROGLIFOA: zenbat kilometro egingo duzu KORRIKAn?



Z

KORRIKA-kanta aingerutxoan moduan abestu duzunez, **dadoa birritan bota dezakezu jarraian txartelik hartu gabe.**



Z

Antidopin-kontrola egin dizute eta argi gorria piztu da. Hartu duzunaren eragina pasatzen uzteko, **hiru aldiz geratu beharko duzu jokatu gabe.**



Z

Aste osoan, piperrik egin gabe eta anesthesiarik gabe, irakaslea jasan duzunez, **zure fitxa bost lauki aurrerago eramango duzu.** Segi horrela!



Z

KORRIKAn, erdaraz hitz egiten harrapatu zaitugu. **Zure fitxa hamar lauki atzera eraman behar duzu, txanda galduta.**



Z

Kilometro oso bat egin duzu korrika, gelditu eta negarrik egin gabe. Balentria ospatzeko, **bota ezazu dadoa berriro, txapeldun!**



Z


KORRIKA-kanta abesten hasi zara eta, arraioa!, ez dakizu osorik. Kanta osoa ikasteko, **hiru aldiz jokatu gabe geratuko zara, txanda galduta.**



Z

KORRIKAn, behar bezala, KORRIKA-arropa jantzita agertu zara oinetatik burura. Horren dotore etortzeagatik, **eraman zure fitxa bost lauki aurrerago eta bota dadoa berriro.**





22. *æk* korrika